

KANTUA. Beheti, Bordaxar, Etxart, Larrandaburu eta bost musikari dira joatekoak

Zuberoako lau abeslarik kantaldiak emango dituzte otsailean Kalifornian

Bakersfield, Chino eta San Frantziskon emango dituzte kontzertuak, eta ondotik, dantzaldiak

Allande Sokarros | MAULE

Jean Bordaxar, Niko Etxart, Dominique Beheti eta Robert Larrandaburu zuberotar abeslariek lau kantaldi eta dantzaldi emango dituzte Kaliforniako hiru hiritan datozen otsailaren 14a eta 28a bitartean, Ameriketako Estatu Batuetako herrialde honetara egingo duten itzulian. Lau zuberotar kantariekin batera Ipar Euskal Herriko bost musikari egongo dira San Frantziskon bi lekutan, Baskerfielden eta Chinon egingo diren gaualdietan, hots, Dominic Earl gitarrista, Nat Cazare baxu jotzailea eta Alex Diharze eta Karine Perreton akordeiolariak.

Hogeita bat urte bazen Zuberoako kantaririk ez zela ibili Kalifornian zehar eta, hain zuzen ere, otsail honetan joango diren lauretatik bata zen azkenik ibilitakoa, hots, Niko Etxart abeslari eta musikari famatua. Itzulian parte hartuko duen Jean Bordaxarrek zuen lehendabizi izan Euskal Herriar asko eta haien oinordekoak bizi diren Kaliforniarat joate honen asmoa. Arrokiagako semearen adiskide da NABO North American Basque Organizacion elkartearen lehendakari ohi Jean Unhasobizkai, eta horrekin izandako solasaldi batetik da dena abiatu.

NABOren gaur egungo buruzagi Pierra Etxarrekin harremanetan ezartzea proposatu zion Jean Unhasobizkaiak Bordaxarri, Zuberoako kantu tradizionalaren inguruko agerraldiak AEBetan aurkezteko aukera aztertzearen. Etxarrenek eta Bordaxarrek Donibane Garazin elkar ikusi zuten, eta Kalifornian kantaldi sorta bat antolatzeko ahaleginak oro egitea hitzartu zuten. Ez kantaldiak soilik, gainerat; euskal giroko dantzaldiak ere bai, ondotik, lehenago Ipar Euskal Herrian behintzat oso arrakasta handikoak ziren ikusgarri motak ber-sortuta.

Aipatutako lau kantariek



GILLES XURI
Dominique Beheti, Robert Larrandaburu eta Jean Bordaxar, emanaldiaren mustraka batean.

JEAN BORDAXAR

Zuberotar kantaria

«Zuberoan zein Ipar Euskal Herri osoan kantu tradizionala biziberritu dela erakusterat ematea izan da ene nahikundea»

«Ikusgarria euskaldunak dauden beste herrietan aurkeztea da taldeko kideen asmoa»

ordu bat pasa iraungo duen kantaldian emango dituzten abestiak kantu tradizionalak aire ezagunak izango dira, baita Jean Bordaxarrek bere lehen diskoarentzat asmatutako kantu berriak ere. Guztira, 15-20 kantu emango dituzte abeslariek, eta litekeena da Jean Bordaxarrek urte honen amaierako kaleratuko duen bigarren diskoko zenbait kantu ere ematea. Hortaz, Kaliforniako euskal

kantuzaleek nolabaitek eskusibitatea gozatuko dute.

Beste leku batzuetan emateko prest

Niko Etxarten aurkezterik ez bada, bi hitz erran dezagun Jean Bordaxar lagunduko duten beste bi abeslariek. Robert Larrandaburu larraintarra, izen-abizen berak dituen Pipas mendigoizalearen osaba da, nahiz eta urte batez gazteago den! Jean Bordaxarren taldean kantuz ari da azken urteotan, Ttutu Luro eta Jean Noel Pinke barkoxtarrekin batera. Azken bi horiek laborariak dira, eta euren lanagatik ezin ziren Kaliforniara joan. Niko Etxartek eta Dominique Behetik ordezkatu dituzte, beraz. Dominique Beheti, hain zuzen, Pagolako seme da eta Baionako Kriolina taldean kantuz ari da.

Kaliforniako itzuli honekin gauzatu nahi lukeen egitasmoaz galdetu diogularik, zera erran digu Jean Bordaxarrek: «Zuberoan zein ere Ipar Euskal Herri osoan kantu tradizionala biziberritu dela erakusterat

ematea izan da ene nahikundea».

Kantaldia eta dantzaldia elkartzen dituen ikusgarri hauek beste zenbait lekutan emateko gogorik dutenez galdeturik, berriz, «taldeko kideen asmoa ikusgarri hau euskaldunak dauden beste herrietan aurkeztea litzateke, hala nola Argentinan, Venezuelan edo beste», erantzun digu Bordaxarrek. Haatik, bere taldekideekin batera, prest da formula honetako gaualdiak Zuberoan bertan zein ere Euskal Herriko beste edozein lekutan aurkezteko. Azken batean, kantaldiaz eta dantzaldiaz gain, Bordaxarrek eta bere lagunek espero dute jai giroak, kantuz aritzea, tabernetan, karriketan, plazetan edo beste edozein lekutan jarraituko duela gaualdiotan.

Kaliforniako itzuli honentzako NABOren diruzko parte hartzeaz gain, lau kantariek eta bost musikariek Eusko Jaurlaritzaren, Euskal Kultur Erakundearen eta Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiaren laguntzak ere jaso dituzte.

ARTEA

De Chavannesen garrantzia aldarrikatzen duen erakusketa eratu dute Italian

Agentziak | VENEZIA

Pierre Puvis de Chavannes frantziar margolariak arte modernoaren sorreran izandako eragina errebindikatzen duen erakusketa eratu du Veneziako Grassi jauregian Serge Lemoine Parisko D'Orsay Museoko zuzendariak. Eragin horretaz ohartarazteko asmoz, De Chavannesen lanen ondoan Cezanne, Gauguin, Munch, Rodin, Picasso eta Matisseren lanak ezarri ditu, besteak beste, Lemoinek erakusketan. 200dik gora lan bildu ditu, guztira.

Erakusketarekin arte modernoaren sorreraren inguruko debatea piztu nahi izan du Lemoinek. Eskuarki Manet eta inpresionistak aipatu ohi dira arte modernoaren aitzindarien aurrekari gertukotzat, baina Lemoinek bestelako eraginik ere izan zuela azpimarratu du.

1824an sortu zen Puvis de Chavannes. Gaztetan egin zituen lanek ez zuten harrera onik izan. Heldutakoan egindakoek harreara hobe izan bazuten ere, inoiz ez zen erreferentzia garrantzitsua izan pintura akademikoarentzat, hain gutxi inpresionismoarentzat.

Idea single baina indartsuak

«Hizkuntza berri bat eta ideia single baina indartsuak» ekarri zituen, Lemoineren ustez, pinturaren mundura. Haren lanetan ageri ziren elementuak bata bestearekin konbinatuta zein modu autonomoan ikus zitezkeen. Esate baterako, Lemoinek dioenez, Picassoren lanetan De Chavannesen eragina nabari da figuren zein taldeen kokapenean, eta baita espazioen banaketa sinplifikatuan ere.

aizu!
berria kalean

Joxan Goikoetxea: "Tentazioa da kantu zaharrak berpiztea"
Indymedia Euskal Herria jaiotzeaz

Lesakako Zaku-zaharrak • Arin-arin: Sustrai Colina • Kanpoan bizi diren euskal gazteak
San Frantzisko auzoa hizkuntzen topagunea • Iparraldeko Herriko kooperatiba lana sortzen
Tel.: 94 415 95 12 - Faxa: 94 416 65 55 - aizu-bizkalea@aeknet.net

